

546 PELERENIA GELAREN BARNE ARAUDIA

Harrera-gaitasuna : 80 pertsona

Alokatzea : 60 € - Garbiketarako bermea : 60 € - Andeatze edo makur ibiltzearen kontra egiteko bermea : 200 €

1) Denen esku ezarria den materiala

- 76 kadirak
- 21 mahai (6 pertsona)
- 2 hozkailu
- bitrozeramikazko kozinataula 1
- erratzak – karrakagailuak
- zola eta sukaldeko lan mahaiaren garbiketa

2) Gelaren garbiketa gertakari baten ondotik :

a) Garbiketa

- Zola zikina bada, erratza eta trapuz garbitu eta ongi xafarratu
- Komunak garbitu
- Sukaldea garbitu (zola eta lan mahaia)
- Kanpoaldea garbitu (paperak, berinak, zigarreta muturrak eta beste hondarkin guztiak kendu)

b) Antolamendua

- Mahaiak eta kadirak sartzeko atearen eskuinaldean (komunera joateko pasabidea libre utzi)
- Argiak itzali
- Gasa moztu

3) Esku uztearen inguruko arauak

Pelerenea lokala aldi baterako prestatzea, adinetan diren Larresoroko biztanle guzietan zuzendua da, larunbat eguerdi edo igande eguerdian asteburuka, edo besta egunetan, eguerdian ere.

Lekuaren egoera-akta eta giltzen ematea (sartzean) :

- Larunbatez alokatzen bada : lekuaren egoera-akta ostiralez 18:00etan
- Igandez alokatzen bada : lekuaren egoera-akta larunbatez 18:00etan
- Besta egun batez alokatzen bada : lekuaren egoera-akta bezperan, 18:00etan

Lekuaren egoera-akta eta giltzen itzultzea (lokala erabili ondotik) :

- Larunbatez alokatzen bada : egoera-akta igandean, goizeko 10:00ak aitzin
- Igandez alokatzen bada : egoera-akta astelehenean, goizeko 10:00ak aitzin
- Besta egun batez alokatzen bada : egoera-akta biharamunean, goizeko 10:00ak aitzin

Debekatua da eskailera etxean errekiak egitea

Hertsiki debekatua da lokalen barnean erretzea. Zikinontziak hustu eta kontainer egokietan ezarri beharko dira.

Larresoroko edozein biztanle helduren eskura jartzea 21:00etan bukatuko da. Epemuga gaindituz gero, 200 euroko bermea atxikiko da.

Edozein andeatze edo biltze/garbiketa eskasak, 200 euroko bermea osorik edo zati batean atxikitzea ekarriko du, lokala berregokitu ahal izateko fakturazioarekin, beharrezkoa bada. Azken egoera-aktaren denboran ikusten balitz lokala ez dela behar bezala garbitu edo bildu, bermetik 60 € atxikiko lirerate garbitzeko.

Herriko etxeak eskubidea izanen du, beharrezkoa bada, elkarte batek erreserbatutako gau edo egun bat hartzeko. Momentu egokian jakinaraziko zaio elkarte horri.

Urte bakoitzeko abuztu erdian, elkarteetako arduradunek ondoko urterako jardueren datak eta orduak jakinarazi beharko dituzte herriko etxean. Noizbehinkako jardueretarako, eskaerak herriko etxean ere egin beharko dira, eta herriko etxeak eskubidea izanen du lokalaren prestatzea hautatzeko, plangintzaren arabera.

Larunbat eta igandetan, lokala ezingo da jarduera erregularrentzako erreserbatu, ekimenak antolatu edo partikularrei alokatzeko aukera egon dadin.

Eguberri, Urtats eguna edo horrelako gertakariarentzat, lokala tokiko elkarteetara zuzenduko zaie.

Pelerenia gelaren herriko arduradunak : SAMANOS Laurence, MOUNOLE Claude, PECASTAINGS Denise, LAFARGUE Maider, LEDOUX Christelle, LOYCE Maritxu, RECONDO Vincent, SAINTE MARIE Irène, VERDUN Béatrice.